

Bada sekula epeltzen ez den kafe bat

Kafea eta Galletak

Noiz: martxoaren 14a.

Non: Astra, Gernika.

Musikariak: Morau eta Beñardo.

BERROGEIGARREN eta, itxura guztien arabera, azken edizioa zuen Kafea eta Galletak egitasmoak hilaren 14an. Han agertu ziren Andoni Tolosa “Morau” eta Beñardo Goietxe, elkarrekin ondu duten *Arrainentzako himnoak* diskoa zuzenean aurkeztera, Townes Van Zandt-en *Live at the Old Quarter* komentatzearekin batera.

Inoiz ez da masentzat pentsatutako kontzertu mota izan Gernikakoa, baina 2008an martxan jarri zenetik erreferentzialtasuna lortu du, jotzera gonbidatu dituzten musikariengatik bezainbeste, egitasmoaren originaltasunarengatik. Hilero elkartu, zuzenean aritu behar duen musikariak hautatutako disko bat entzun kafea eta galletak dastatu bitartean –hortik izena– eta ondoren formatu txikiko boloa.

Denbora luzez antolatu gabe egon ondoren, aho zapore ona utzi zuen Gernikako Lekuek festibalaren barruan egindako hondarreko saioak: aspalditik zebiltzan Morau ekarri nahian Leire Lopez antolatzaileak



hasieran aipatu zuenez, eta hernaniarraren pop dibe-
tigarriak aurreikuspenak ondo bete zituen. Eguneroko
kontuen ironiaz beterik dago Goietxe beratarrekin
batera osatu duen diskoa; eta musikari askok inbidiaz
entzungo dituzten melodiaz.

Bereziki hunkigarria egin zitzaidan *Hondarribia*
2012 kanta, baita The Smiths bertsionatuz kontzertua
itxi zuen *Bada sekula itzaltzen ez den argi bat* ere. Ez niri
bakarrik: ikusle batzuek agertoki gainean dantzan esan
zioten agur Kafea eta Galletaki. ■

Gorka Bereziartua Mitxelena

Zahartzaroan ere punk



Buzzcocks eta The Lookers

Noiz: martxoaren 28a, 22:00.

Non: Intxaurren Kultur Etxea, Donostia.

Sarrera: 18 euro.

BAI, ados, askoz hobe izango zen kontzertu hau bere
garaian ikusi izana, tokatzen zenean, hasi zirenean
adibidez: 1976 inguruan astindu zituen gitarrak
lehenbiziko aldiz Buzzcocks taldeak. Eta punk britai-
narraren ezteandaren urteak ziren, baina beti dago
zalantza mahai gainean jarriko dizunik: “Hauek punk
taldea? Niri oso pop iruditzen zaizkit”.

Bata ala bestea izan, 70eko hamarkadaren amaie-
ran zenbait kolpe on jo zituzten –nahi gabe ere entzu-
na izango duzu 1978ko *Ever Fallen in Love (With*
Someone You Shouldn't've)–; eta halere, Boltongo talde
honen izena bigarren planoan geratu da musikaren
historiarentzat, Sex Pistols edo The Clash erraldaien
atzean.

Baina musika ez denez famatuena nor bihurtu den
epaitzeko lehiaketa –ez luke izan behar behintzat–,
2014an disko berriarekin itzuli ziren beterano hauen
kontzertuak aukera ona dirudi, rockero zaharrak ez
direla inoiz hiltzen dioen esaldi horri egia ote den fro-
gatzeko. Zita bakarra dute Euskal Herrian. ■

**Gorka Bereziartua
Mitxelena**